


15 zka 1994.eko Martxoa

EGASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



BASKONIA
aurten finalean



Arabako aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskurtu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen dituz eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

NON - ZER

- 4.** Bertsoak
- 5.** BASKONIA.
Argazki-erreportaia
- 7.** Kalea Mintzo
- 7.** Atzoko eta Gaurko
- 10.** Erreportaia:
Arabako Euskal
Pentsaren aitzindariak
- 12.** Euskaltasunean
lagun • elkarriketa
- 13.** Elkarriketa:
Traspasos
- 16.** Erreportaia:
Arabako Euskal
Pentsaren aitzindariak
- 18.** Musika • Liburuak
- 19.** Haurrak
- 21.** Kirolak:
Konpa hiru hormetako
erregea.
- 26.** Kultur Agenda
- 30.** Komikia



Handiak dira –dudarik ez– Gasteizen azken urteotan euskalduntze-bidean eman diren pausuak. Nahikoak ez, inola ere ez, eta gai honetan oso konformidade txarrekoak izan beharko genuke.

Handiak dira, eta izan dira, erdaldun mordo batek euskara ikasteko egin dituen ahaleginak eta, baita ere, guraso erdaldun askok bere seme-alabak euskaldundu daitezen gaitututako oztopo eta arazo. Harro egon beharko genuke, beraz, gutxi, gutxiegi izatetik asko, gehienak izatera euskaldunok jotatzen ari gara *kate-maila* paperaz.

Handiagoa da, ziur, gure ohizko kultur pobreziatik ateratzeko jorratzeke geratzen zaigun bidea: pertsona erdaldunak-herri erdalduna izatetik pertsona eleanitzak-herri euskalduna izatera.

Ikaste-prozesu honetan eskolan dago gakoa eta guztion erronka da:

- euskaldunak gureganatzea, bere euskal–zale–tasunaren biderkatzailea izanik bere seme-alaba euskaldunentzat euskal eskola eredu aproposa eta propioa bila dezaten.

- erdaldunak gureganatzea, animatuz eta aupa!-tuz, batzuk, konbentzitu bestek eta paleolitikoenei... ez dutela bere seme-alabak elebaker izatera kondenatzeko –eta ondorioz horrela diskriminatzeko– eskubiderik jakinaraziz.

- erakundeak gureganatzea, gure eskeintza eta esijentzia militantearekin. Burutik hasita eredu izan daitezen eta euskara-euskal eskola versus erdal eskola positibiza dezaten.

Aurrera, bada: etorkizuna euskaraz baitator!

Xabier Galarraga
GEU elkarteko kidea



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92

GEU elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Joseba Gorostiza **Erredakzio-batzordea:**

Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia,
Txema Millan, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez
de Aberasturi, Inaxio Lopez de Arana, Ismael Diaz de,
Mendibil, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo **Hizkuntz**
egokitzailea: Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo
Sarasola **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo

Publizitatea: Martin Rezola **Argazkilariak:**
Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Josu
Txabarri **Kolaboratzaileak:** Agurte Aizpitarte,
Txipi Ormaetxea

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzunkizunik



IRATI LOTINA

Ikastolatik aparte, zer egin?

I

Ikastolatik atera eta
nik badaukat zereginik
hasera baten buruko mina
kendu beharra daukak nik
saskibaloia ta bertso eskola
egunez egun eukirik
asteaz zehar nire bizitzak
ez dakar gauza handirik

II

Asteburua heldu orduko
iristen da atsedena
Kutxi aldean pasatutzen det
asteburuko onena
Baina halere bada bauza bat
ematen didana pena
Gu konturatzen garenerako
heldu dela astelehena

“*Martxo lore' urde lore'*”

“*Martiko denporie' edurre ta eurie'*”

“*Andra Mari Martiko (Martxoak 25) udea
dala betiko'*”

GEU GASTEIZ aldizkaria etxean jaso nahi dut.

IZENA.....

KALEA:.....

DEITURAK:

Zenb: Pisua:

Kode Postala

HERRIA:

NOLA?

Oraindik ez duzula etxean
jasotzen GEU GASTEIZ
aldizkaria?

Eta zeren zai zaude?... ez al
dakizu dohain banatzen dela?
Bete ezazu ondorengo laukia eta
bidali 1.691 posta kutxara.

ibUSGAR'i

t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoia, narruzko arropak,
berokiak eta lumazko aropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea

Tfno: 13 18 55

01005 - GASTEIZ

Gasteizen oihua: **bas-ko-nia!**



TAUGRES BASKONIA

TAUGRES- BASKONIAK

Euskal saskibaloia-
ren kapitulu polit bat idatzi
du. Gasteiztarrek
Cholet-eko frantsesak
kanporatu dituzte, eta
Europako Koparen
finalean dira
dagoeneko. Laurent
Buffart-en hiru
mosketariak, hots,
Rigaudeau, Mike
Jones eta Jose
Vargas-ek amore
eman behar izan
zuten Manel Comas-
en taldearen aurrean.



ZAILDU EZAIGUZU



"DISEINU ESKLUSIBO ETA
KALITATE BIKAINETZKO
BETAURREKOEN BILA NABIL"
MULTIOPTICASen Sara eta Berto
eustura eskusibook

"GARANTIA OSOA
ESKATZEN DUT"
MULTIOPTICASen garantaia
txartelak EUROPAko
3000 optiketan balio ditu.



MENDIA OPTIKAN ERRAZTUKO DIZUGU

2.850 pta.



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

"ETA PREZIO ONA,
JAKINA"
2.850 pta. bakarrik.



BASKONIA Frantziatik itzultzean, Gasteizen eromena zen nagusi. Andre Mari Zuria Plazan 30.000 lagun bildu ziren taldeari harrera emateko. Izugarria benetan. Hantxe ziren taldekide guztiak, Ken Animal Bannister, animalirik onena zalantzarik gabe, Perasovic, hirukoak egiteko makina croatiarra, Pablo Laso, baloi ezinhobeak bidaltzen dituen antolatzailea... Taldeak Gasteizko Jagolea den Andre Mari Zuriari, lore batzuk utziz, garaipena eskaini zion. Zeledon eguna zirudien, taldeko atzerritarrek ezin zuten hura sinetsi, eta euren aurpegietan harridura nabaria zen.

ONENA ETORTZEAR

dago hala ere, Finala Suitzan izango da, Lausannen hain zuzen. Taldea ez da bakarrik joango, ehundaka gasteiztar abiatuko baitira Suitzarantz taldearen seigarren jokalaria izateko asmoz. Europako Kopa lortuz gero, ez dakigu zer gertatuko den Gasteizen.





azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

INPRIMATEGIA

GASTEIZ



**CAFÉ
PLATO**

Zaldiaran Enparantza, 10 • GASTEIZ

BASKONIAri egin zitzaion harrera ikusgarri izan zen. Guk honetaz kalean dauden iritziak eskeini nahian, Gasteizko euskaltegi batera jo dugu bi galdera egiteko asmoz:

**1. Zer moduz dago Baskonia?
Zer deritzozue garaipan berri honi?**

**2. Ikusi al zenuten egin zitzaien harrera?
Zer iruditu zitzaizuen?**



CARMEN FRIAS
sukaldaria
21 urte

1.- Ni neu ez naiz saski-baloizalea. Hala ere ondo iruditu zait. Horrela jarrai dezatela.

2.- Ez nintzen egon, lanean nengoen



MAITE PZ DE
NANCLARES
Ikaslea 18 urte

1.- Ondo. Hau lehenbizikoa izan da baina gehiago ere egongo dira.

2.- Nik klasea nuen baina azkena telebistan ikusi genuen abestu eta oihukatuz. Imagina ezazu finala irabazi eta gero....



NEREA NAVARRO
Ikaslea
22 urte

1.- Oso ondo dago. Aupa Baskonia!

2.- Harrera pixka bat gehiegizkoa iruditu zitzaidan. Gainera lore-eskeintza egingo omen diote Andra Mari Zuriari. Ni Baskoniazalea naiz baina ez dut uste hori beharrezkoa denik. Hori bai, Laussanen Baskoniak irabaziko du berriro ere.



DELI RAMON (ikaslea,
18 urte) eta MARIAN
Fdz DE ARROIA BE
(ileapaintzailea, 36 urte)

1.- Finaleraino iristea oso ondo iruditzen zait. Oso talde ona dugula uste dugu.

2.- Ez ginen joan baina telebistan ikusi genuen. Harrituta geratu ginen hainbeste jende ikustez. Hunkigarria izan zen.



REME ARANSAEZ
Langabetua
30 urte

1.- Baskonia ondo doala uste dut. Espero dut hurrengo partiduan ere irabaztea baina zailada. 'Besteak ere oso onak dira.

2.- Bai, ikusi nuen. Oso giro ona zegoen, nahiz eta pixka bat exageratua izan. Jokalariak harrituta zeuden, baina oso pozik.



MAITE GAMAZO
Etxekoandrea
26 urte

1.- Merezi izan dute finalera iristea. Frantsesak nahiko gaizki portatu ziren bain alferrik.

2.- Harrera gehiegizkoa iruditu zitzaidan. Hala ere, egia da merezi zutela. Ikusiko dugu zer gertatzen den baina irabaziz gero hau ikaragarria izango da.

GARNICA

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

Atzoko eta gaurko...



KORRERIA KALEA. Argazkietan (goikoa 1915an E. Guineak aterea) Santa Maria Elizako dorrea ikus dezakegu. Honen azpian Anda familiaren jauregi dorrea eta aurrean desagertu eta Burulleria plazara leku utzi dion eraikuntza. Lehen planoan agertzen den etxean, plaka bat duzue, non 1.484ko Irailaren 22an, Isabel I katolikoa Gasteizen sartu aurretik hiriaren ohiturak eta libertateak errespetatzea zin egin behar izan zuela agertzen den.

BAZENEKIEN...?

...Gasteiz, Santa Maria elizatik San Miguel eta San Vicente arteko leku bateraino zihoan ardatzaren inguruan eraiki zutela?

...Hasiera batean Gasteiz hiru kalek osatu zutela: Santa Maria, Fray Zacarias eta Escuelas kaleek, hain zuzen ere?

...Hasierako gune hau guztiz erre zela 1202. urtean?

...Alfontso VIII.ak, kale hauek berreraiki ezezik, mendebaldean 3 kale berri eraikitzeko agindua eman zuela, Korreria, Zapateria eta Herreria horrela sortu zirelarik?

...1256ean zabalgunek berri bat burutu zela –ordu horretan Ekialdean– Alfontso X.a jakitunaren eraginpean eta horrela aurrekoekin era simetrikoki batean Cuchilleria, Pintoreria eta Juderia kaleak atxikiz?

...Santa Maria katedrala, hasiera batean parroquia baino ez zela, 1496an Kolegiata bihurtu eta 1862an, Gasteizko Eliz Barrutia eratu zenean katedral bihurtu zutela?

arcaya


Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA

Telefonoa: 23 17 13

ARABAKO EUSKAL PRENTSAREN AITZINDARIAK: gogotsuen kemena



Adibide urriak badira ere, gaur egungo Arabako euskal prentsak badu aitzindaririk, beti ere zenbait euskaltzale sutsuren asmoei esker. Politika eta kultura ziren gerra aurreko arabar euskaldunen egitasmoaen oinarriak. Arabako euskal kazetari haien artean, hiru ditugu nabarmenak: Luis Eleizalde, Odon Apraiz eta Andoni Urrestarazu.



Euskara hutsezko aldizkaririk aurkitzen ez badugu ere, zenbait argitalpen elebidunetan euskarari bultzadatxo bat eman nahi izan zioten euskaltzale arabarrek. XIX. mendearen azkenaldean Gasteizen argitaraturiko aldizkari batzuetan noiz behinka euskarazko testurik agertu zen. Esate baterako, 1878.ean Fermin Herranek kaleratu zuen *Revista de las Provincias Euskaras* aldizkarian Iparragirrereren eta Arrese Beitiaren olerkiak irakur daitezke. Ezin dugu ahaztu 1882.ean *El Ateneo* aldizkarian Mogelen *Peru Abarca* ospetsua argitaratu zela.

XIX. mendea

Euskal kazetaritzaren saiakera bitxienetarik baten lekukoa izan zen. Garai hartan euskaldun asko eta asko Ameriketara joan zen, eta Parisen astekari bat sortu zen haiei hemengo berriak eramateko: *Gure Izarra. Euscalerrico berriac astean bein* izenekoa. Bi ale agertu ziren, zero eta lehenengo alea (Gasteizko Legebiltzarrean gordea berau). Bertan Euskal Herriko lurralde guztietako berriak zeuden, Arabakoak barne.

Legutianoko kazetari ezezagun batek han gertatutakoaren berri ematen zuen. Albiste xelebreak, hala nola, Legutianoko bikote gazte batek ihes egin zuela, gure arteko Romeo eta Julieta berriak bailiran.

XX. mendea

Dena den, euskal prentsaren arloan Araban eman ziren urratsik garrantzitsuenak XX. mendekoak ditugu. Luis Eleizalderen kemenez sortu zen 1912ean

Arabarra, jeltkideen pentsamoldea isladatzen zuen aldizkaria. Erdara nagusi izan arren, bazegoen euskararentzako txokorik. Eleizalde bera arduratu zen horretaz, Mattin goitizena erabiliz. Gehienak testu politikoak ziren. Hala ere, olerkiren bat argitaratu zuen zientzietan aritzen zen gizon hark. Bergaran jaioa, Institutuko irakaslea, Eleizaldek piztu zuen Araban abertzaletasuna, eta euskaldun gutxi zegoen lekuan berak lan nekaezina egin zuen gure hizkuntzaren alde.

Arabarra, garai hartako kazetaritza ideologikoaren adibidea, zirkunstantzien arabera argitaratu zen. Arana Goirik eta Eleizaldek berak argitaratu zituzten aldizkariak desagertu ondoren, 1912 eta 1913. urteetan beste lurraldeetako



Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Bizkaitarra, Napartarra eta Gipuzkoarra aldizkari jelkideak plazaratzen hasi ziren. 1913ean EAJk *Euzkadi* egunkaria kaleratzeari ekin zion eta aipatutako horiek desagertu ziren.

Hala ere, politikak ezartzen zituen beharren arabera, *Arabarra* Munduko I. Gudaldian (1914-1919), 1922ean eta II. Errepublikaldian (1932-1933) agertu zen. 1922. urtera arte Eleizalde aritu zen euskaraz. Urtebete beranduago, 1923ean hil zen, baina hazia ereinda zegoen ordurako. Errepublikan gazte batzuk, Araban jaioak, buru belarri sartu ziren euskararen munduan. Horietako bi Odon Apraiz eta duela hilabete batzuk hil den Andoni Urrestarazu ditugu. Biek, baina batez ere bigarrenak (artean ez zuen erabiltzen gero ezaguna egingo zuen *Umandi* goitizena, *Utarra* baino), idatzi zuten *Arabarra* aldizkarian. Urrestarazuk hasieran bizkaieraz eta gero gipuzkeraz. Araiar hau euskara ikasten hasi zen *Euskeltzale-Bazkunaren* metodoa erabiliz (bizkaieraz), eta gero Madrilen behin betirako ikasi zuen euskara (gipuzkera kasu honetan), Eusko Ikaskuntzak ematen zituen ikastaldiari batean, hango banketxe batean lan egiten zuen bitartean. Bai Urrestarazuk, bai Apraizek, oso lan zaila hartu zuten beren gain: euskara bultzatzea, Araban oso galduta bazegoen ere. Apraizek berak kalkulatu zuenez, 1850. urte aldera arabarren %20ak bakarrik hitzegiten zuen euskaraz. 1930ean, aldiz, ia Aramaion bakarrik erabiltzen zen. Gasteizen, Katedral Berria eraikitzen zirela ziren bizkaitar eta batez ere gipuzkoarrak bakarrik mintzatzen ziren gure hizkuntzaz.

Eta Arabako euskal prentsaren aitzindari egindako gainbegiradaxo hau bukatzeko, 1934an Gasteizen denbora

gutxitan agerturiko beste aldizkari bat aipatu behar dugu: 5. Izan ere, *bost* ziren haren sortzaileak, bost gasteiztar gazte kementsu: Julio Calvillo, Manuel Garaizabal, Jose Maria Saenz de San Pedro, Luis Alemany marrazkilaria eta Antonio Odriozola. Azken honek Lope de Ruedaren paso baten itzulpena eta hiru olerki argitaratu zituen Europako korrante literario abangoardisten hildotik. Espainiar ereduak era bazeuden, Garcia Lorca eta Rafael Alberti nagusi. Albertiren olerki bat ere irakur daiteke, Apraizek euskaratua: «*Izukuntza Europa ziar*».

Hauek eta hain ezagunak ez diren beste arabar batzuk gogotik saiatu ziren euskararen aldeko lana egiten. Aipatu gabe gelditzen dira, adibidez, Abdon Alaiza musituarrak Euskal Herriko lehen komikia –euskara hutsezkoa– argitaratzeko egin zituen ahaleginak.

Javier Díaz Noci

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta euskarazko komunikabideen historiari buruzko tesi baten egilea.



MIKO

izozkiak



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



RAFA ETXEGARAI

-1.944ko maiatzaren 27an jaioa, Geminiz, baina ez dio horoskopoiari begiratzeko.

-Lesakakoa. Antzina. *Iparragirrenbor-da* zuen izena Rafaren baserriak. Gerora, *Agortigogorra* izena izan zuen: erre eta *Agorretxeberri* da orain.

-Hogeitabost urte dira Gasteizen bizi dena. Santa Luzian bizi da orain.

-Ezkondua, gasteiztarra du emazte: Maika. Bi seme: 16 eta 12koa (Ibon eta Eneko, hurrenez hurren).

-Oñati-Haro-Gasteizen estudiantu zuen. Hiruburuon, apaizetxean, Filosofia-Teologiak.

-Axular liburudendan egiten du lan. Hezkuntza, Historia eta Zuzentza sailen ardura du. Atseginez hartuko zaitu.

-Mendira joatea, mendi bizikletari eragitea, pilotan egitea, eskiatzea eta beste ditu zaletasun.

EUSKALTASUNEAN LAGUN

Galdera: Duzun biziorik handiena?

Erantzuna: Lagunarteko kirola

G. Bertutea?

E. Beharbada optimista izatea. Txarrena ere horixe dela esaten dute baina...

G. Famatu adiskide baten izena?

E. Adiskide ez baina Bernardo Atxaga jarriko nuke ezagunen artean famatuena.

G. Zer eskatzen diozu bizitzari?

E. Lanaren falta ez izatea eta familia aurrera ateratzea

G. Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

E. Ez dago txarto Vitoria-Gasteiz. Ez da aldatu behar jendeak onartzen duen izena

G. Gasteiz ala Lesaka?

E. Gasteizen oso pozik bizi naiz. Lesaka nire herria da, eta aurreko izaera ez da ahaztu behar.

G. Jenio bizikoa ote zaitugu?

E. Ez jenio txarra, baizik nerbioak

G. Momentuko kezkarik handiena?

E. Semeak aurrera joan daitezela

G. GEU elkartearen berririk bai?

E. Izena emanda daukat eta jarraitzen ditut GEUk egiten dituenak.

G. Egunkari baten izena?

E. Euskaraz, daukagun bakarra: Euskaldunon Egunkaria. Erdaraz, ahal ditudan guztiak. Batekin bakarrik gaur ez da aski.

G. Telebista programa?

E. Gutxi ikusten dut. Mahai inguruak eta eztabaida saioak ikusten saiatzen naiz.

G. Oporrak non eta zertarako?

E. Familia eta lagunekin ondo pasatzeko eta eguneroko lana pixka bat ahazteko. Datorren Aste Santuan, eskiatzera joango naiz.

G. Nor da sukaldari zuenean?

E. Amona, gainera etxeko edozeinek trankil egiten du.

G. Etxeko lanak nork?

E. Nire andreak nik baino gehiago egiten du etxean.

G. Nongo euskera duzu?

E. Nahastua. Euskara besterik gabe. Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta hobe.

G. Zerk ateratzen zaitu zeure onetik?

E. Erreza da nire onetik ateratzea, badakizu, nerbioak.

G. Jaki goxoren bat?

E. Denak. Eguneroko jana gustatzen zait. Jaki erreka jango nuke, batez ere; labean edo sutan

G. Eguna liburu artean eman eta irakurtzeko gogorik bai?

E. Bai, egunero irakurtzen dut zerbait etxean.

G. Guztiok irakurtzeko moduko libururen bat?

E. Oso atsegina da Atxagaren azkenengoa, 'Gizona bere bakardadean'.

G. Aktoretik?

E. Dustin Hoffman. *Rain Man* filmean.

G. Txikitako oroitzapen ederren bat?

E. Lagunarteko jokuak Lesakan. Txikitakoak

G. Igande goizez zer?

E. Mendira. Edo lagunekin buelta bat ematera.

G. Gorputz-atalik politena?

E. Defektorik ez izatea.

G. Ametsik?

E. Orain arte bezala bizitza aurrera jarraitzea.

G. Gizarte arloan, zer aldatuko zenuke?

E. Lana denentzat. Horren ondoren, ongi egon.

G. Hilda gero zer nahi zenuke jendeak zutaz esatea?

E. Ez zen gizon txarra.

G. Dantzaria?

E. Txarra, inoiz ikasi gabea eta beti ikasteko gogoarekin.


G. Zurekin seguru asmatzeko oparia?

E. Nitaz oroitzea ere nahiko oparia da.

Traspasos

dantzaren bidezko komunikazioa

ELKARRIZKETA



Bere bostgarren lana aurkeztu berri du Traspasos dantza-antzerki talde gasteiztarak. Bederatzi urteko lanaren emaitza da hilabete honetan bertan Gasteizen ikusgai egongo den "Sombrisa" lana. "Sombrisa" lana zorotasuna, ez zorotasuna eta bakardadeari buruzko gogoeta egiten duen ikuskizuna da. Izan ere, Traspasos taldeko lagunek azaldu digutenez, hori da beren lanaren berezitasuna, dantza eta antzerkiaren bitartez ikuslearekiko komunikazioa lortu nahi dutena.



Traspasos taldeak bere lan berria aurkeztuko du egunotan



Bsaurin duela hilabete bat "Sombrisas" lana estreinatu eta gero martxoaren 10ean aurkeztuko du Traspasos dantza-antzerki taldeak bere azken ikuskizuna Gasteizen.

Traspasos taldea 1985ean sortu zen Mikel Gomez de Segura eta Marga Arroyoren eskutik. Ordutik hona bost antzezlan egin dituzte: «Lendo», «Arrapaladan», «Siellas», «Sisifo» eta datozen egunetan ikusi ahal izango dugun «Sombrisas». Azken lan horren kore-

ografiak "zorotasuna eta ez zorotasunaren mugan kokatzen dira eta bakardadearen gaia ere landuz" taldeko lagunek azaldu dutenez. Traspasosen azken lanaren joku estetikoak "itzalak, irribarreak eta haize boladetan oinarritzen da; hoiek dira gure iritziak

“ ‘Sombrisas’ lanaren koreografia zorotasuna eta ez zorotasunaren arteko mugan kokatzen da ”

“ Gure dantza proposamena dantza-antzerkia da eta horrela komunikazioa errezago eman daiteke ”

helarazteko erabiltzen ditugun elementuak”, Javi Ullaren iritziz.

Gasteizko dantza taldeko lagunen ustez, lan hori ezberdina dela esan daiteke. “Hori izaten da gure nahia behintzat, saio bakoitzean lan ezberdina eskeintzen saiatzen gara”, esan dute. Hala ere ekipokideak, dantzariak eta zuzendariak lagur berberak direnez, lan guztien artean nolabaiteko lortura dagoela onartu dute.

“Sombrisas” lana Basauriko *Social* antzokikoekin batera egindako koprodukzioa da. Gasteizko dantza taldeak hilabete eman du Bizkaia aldean lan egiten eta esperientzia horren balorazio erabat positiboa egin dute. Beraientzat oso garrantzitsua izan da baldintza egokietan lan egiteko aukera izatea, horrek estreinaldia zuzen eta artez burutzea ahalbideratuko baitu. Basauriko entsaioetan zehar “materialak, proposamen estetikoak eta gainontzeko guztia estraineko saioa baino lehenenago ezagutu ditugu”. Horretaz gain bertako jendeak beraiei agertu dien jokaera jatorra azpimarratu nahi izan dute.



MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK
Santiago kalea, 39
☎ 26 09 82

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

Basauriko *Social* antzokiarekin egindako akordio mota hori gero eta sarriago egiten dela baieztatu eta "oraindik ere gehiago egingo balira, hobeto", esan du Javi Ullak. Izan ere, oso zaila da dirulaguntzarik gabe antzezlanak kalera ateratzea. Bere azken ekoizpenerako hiru miloi pezetako dirulaguntza jaso du Traspasos taldeak. Bederatzi urtez lanean ihardun eta gero Administrazioetik jasotzen duten lehenengo dirulaguntza dela nabarmendu du taldeak: "urtero ateratzen diren dirulaguntzak jasotzeko paperak, guk urtero betetzen ditugu baina orain arte ez digute ezer eman".

Administrazioaren dirulaguntza eza dela eta "guk ekoiztu behar izan ditugu gure diruaz" azaldu dute taldekideek.

Antzoki azpiegitura eskasa

Nola edo hala aurrera egin du taldeak eta egun Euskal Herrian zehar eta hemendik kanpo ere lan asko egin dute. Antzoki azpiegiturarik eza dute zailtasunik handienetarikoa bat lanari lotzeko orduan. "Euskal Herrian ia ez dago antzokirik. Beraz, kiroldegietan eta horrelako ikuskizunak hartzeko egokiak ez diren lekuetan egin behar izaten dira saioak".

Estatuan ere egoera ez da askoz hobea eta hiri handietan bakarrik aurkitu dituzte gasteiztarrek antzoki egokiak. Hala ere, besterik ez dagoenez kiroldegi edota bestelako lekuetan lan egiteko prest egoten direla

aitortu dute: "eta pozik gainera, besterik ez dagoenean..."

Horretaz gain, dantzaren mundua oso itxia dela salatzen du Marina Ruiz dantzariak. "Dantza konpainia handiek lan egiten dute; besteok, berriz, zaila dugu hori. Eta guk pozik egon behar dugu, lan asko daukagulako besteen aldean".



“Euskal Herrian ez dago antzoki azpiegituratik eta ikuskizun hauek hartzeko egokiak ez diren lekuetan lan egin behar dugu”

Zailtasunak zailtasun, Araba eta Euskal Herriko dantza mundua gero eta biziagoa dela uste du Marinak. "Dantza taldeak behintzat ikusi ikusten dira eta hori garrantzitsua da duela urte pare bat ezer ez zegoelako", esan eta Muare, «La joven Compañía» eta taldeetatik kanpo lan egiten duen hainbat jende ekarri du gogora kantariak.

Dantza ikuskizun horiek harrera ona izaten dutela azpimarratu dute Traspasos-koek. Hala ere, dantzak batzutan oso ikuskizun abstraktotzat jotzeko arriskua dagoela onartu dute. "Guk egiten dugun proposamena dantza-antzerkia da eta horrela komunikazioa errezagoa gerta daiteke agian". Taldeak landutako gaiak ere lagungarriak izaten dira, "egungo gaiak jorratzen saiatzen garelako".

Dantza eta antzerkia nahasteko prozesuan, Mikel Gomez de Segurak duen garrantzia nabarmena da. Izan ere antzerkitik datorren profesionala dugu taldeko zuzendaria. Marina Ruizek esaten duenez, "azken finean, lan orokorra berak egiten du eta beste zuzendari bat izango balitz dantza hutsa egingo genuke agian".

Traspasos taldeko lagunen ustez, ezin daiteke esan beraiek egindako dantza-antzerki proposamena berria denik, euren hitzetan: "gaur egun ezer ez da berria!". Hala ere, beraienazken lana ikusteko aukera ederra dago hilabete honetan bertan Gasteizen. □

Leire Lopez de Aberasturi

FILTON
FILTON
FILTON

FILTON
FILTON
FILTON

Barrancal, 20 (Plaza) • Barrenkalea, 20 / Tel. 14 68 43
01001 GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

Aurrematrikulazioa abian eskola eta ikastoletan



Zenbakiak ez omen dute gezurrik esaten. Horregatik geu ixildu eta haiei utziko diegu hitzegiten.

Zenbakien argipean

Urtez urteko bilakaerari dagokionez, A ereduaren ahultzea (aurtengo eustea gora behera) eta euskal ereduaren sendotzea (D eredu, batez ere) antzematen dira nagusiki. Euskara ikas-alor ere ez duen X eredurik ez da dagoeneko Araban, Izarrako Nazioarteko Barne Eskolan izan ezik.

“Gasteiz ez beste udalerrietan, oso urria da A eredu hiru urteko umeen artean”

Aurtengo eskualdekako kopuruei atxekiz, begi bistakoa da Gasteiz dugula, oraindik ere, A ereduaren gotorleku, az-

Euskal ereduak indartuz doaz Araban azken urteotan

AURTENGO IKASTURTEA azkentzeko lau bat hilabete falta dira oraindik. Halere, irailean ikastolan edo eskolan hasiko diren hiru urteko haurrek orain egin behar dute aurrematrikula eta ekaina aldean behin betiko matrikula. Izena ematearekin batera, hezkuntza-eredua hautatu beharko dute gurasoek. Aukeraketa horrek ume askoren hiz-

kuntz geroa baldintzatuko du, haurtzarora baita euskararen trenara igotzeko tenorerik egokiena (bakarra ez, baina). Arabako euskalgintzak eta umeak berak nozituko edo eskertuko ditu guraso horiek hartutako erabakiaren ondorioak. Argi dago, bestalde, euskal ereduak indartuz joan direla azken urteotan. Horrek agerian uzten du gero eta arabar

gutxiago bizi garela etorkizunari bizkarra emanda; geroa hizkuntz aberastasunarekin loturik datorkigula ohartu gara nonbait. Orri hauetan aztertuko ditugu aurtengo zein aurreko urteotan matrikulatu diren hiru urteko umeen datuak egungo egoera eta gaurdainoko bilakaera hurbiletik eza-gutzeko.

“Izarrako Nazioarteko Barne Eskola dugu X ereduari eusten dion ikastegi bakarra”

ken urteotan euskal ereduak nagusitu bazaizkio ere. Arabako gainerako udalerrietan, aldiz, euskara ikas-alor soil duen hezkuntz-eredu horrek oso presentzia urria du; euskal ereduak, aldiz, esparru ia osoa beraieganatu dute. Nabarmenezkoa da, bestalde, Zuian

euskal eredurik ez duten bitartean, Arabako Errioxako Labarka eta Lantziegon D eredu baina ez eskeintzea.

Denok eragile

Zenbakiok, dudarik ez, itxaropenarako bidea ematen dute; ez, ordea, nagikeriarako edota ameskeriarako. Denon artean bultzatu behar ditugu euskal ereduak. “Nik seme-alabak ikastola bidaltzen ditut”, esan dezake norbaitek bere egitekoak horretara mugatu be-

harko bailuen. Horri oso garrantzitsu iritziagatik, gehiagorik ere egin daiteke: jarrera aktiboa izan behar dugu euskaltzaleok nork bere inguruan eraginez, euskalgintzarako bide neketsuan aurrerago egingo badugu □


Zenbait datu

ARABAKO HIRU URTEKO NESKA-MUTILEN MATRIKULAZIOA ESKUALDEKA 1993-94 ikasturtea

	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA	X EREDUA	GUZTIRA
DULANTZI		17			17
AMURRIO		34	34		68
ARAMAIO			11		11
ARTZINIAGA		6			6
ARRAZUA-BARRUN.			76		76
ASPARRENA		9			9
AIARA		16			16
MANUETA		4			4
KANPEZU	2				10
ELTZIEGO		3	8		3
OKA-IRUÑA	3	14			17
BASTIDA	6	11			17
BIASTERI	4	11			15
LANTZIEGO			10		10
LABARKA			10		10
LEGUTIO			11		11
LAUDIO		140	22		162
ARRAIA-MAEZTU	-	-	-		-
OKONDO		5			5
OION	14	13			27
ERRIBERA BEITIA	9				9
AGURAIN		23	21		44
URKABUSTAIZ			16	8	24
GAUBEA	3	2			5
ESKUERNAGA		3			3
ZUIA	3				3
GASTEIZ	817	504	380		1.701
GUZTIRA	861	815	599	8	2.283



ARABAKO HIRU URTEKO NESKA-MUTILEN MATRIKULAZIOA URTEZ URTE



Aurtengo ikasturtean B ereduak hainbat ikastola D eredura igaro denez, D ereduak gora egin du eta B ereduak, berriz, behera.

HONTZA Gazte musika

DESCONOCIDO-k aurkezten du: «desconocido»



DESCONOCIDO TALDEA horrelakoxe dugu. Duela kasik hiru urte osatu zen gaur ezagutzen dugun legez. Miranda zein Gasteizko musikariak bildu ziren boskote berria sortzeko. Euren asmoa: Heavy klasikoari heltzea, betikoa bai, baina gogortasunez eta freskotasunez blai. Gazteak izan arren, ez ditugu iritsiberriak musikaren mundu honetara, inolaz ere ez! *Forjas Alavesas, BO!, Rock Dam* edota *Ley Seca* rock taldeek musikari hauetarikoren bat izan dute.

Taldea eratu ondoren, laster gauzatu ziren estraineko proiektuak. Esperientzia izateak laguntza handi eman zien eta 1992eko neguan kaleratu zuten taldea ezagutzera ematen zuen maketa. Mila ale saldu ziren, hogei bat kontzertu burutu, telebistan agertu...

Desconocido aurrera zihoan. Horrela, udazkenean diska grabatzeko aukera ailegatu zitzaion.

Merida alderaino joan behar izan zuten diska prestatzeko. Iazko azaroan emaitza entzun ahal izan genuen: ordubete rock'n roll klasiko eta gogorrean murgildua, erakargarria hasieratik bukaeraraino.

Miranda eta Gasteiz izan ziren lehen-dabiziko lekukoak. Dena dela, azkar izango dugu Desconocido taldea zuzenean dastatzeko parada; bai aintzinako kantak, bai garurkoak, berrienak hain zuzen ere. Bi abesti aurki daitezke komentaturiko bi grabazio horietan: «Mirando en un sentido», Pop-ari begira, eta «loco», rock'n roll azkarra, betiko heavyarekin bat. Berrien artean, «Dame dame» da lehenengo abestia. Ondoren, «Viejo amigo»-k giro baretu eta «No me controles» abestia dela medio abiadura bizian jarriko gaituzte.

Rocka behin eta berriz, lasaia batzutan, arina bestetan, goi mailakoa beti. Saia zaitetz ez dantzatzin «no existe el rock'n roll» entzuten duzuenear. Ezetz lortu!

Joxemari/Txabi Arnal Gil

LIBURUAK



JOXEMIREN UZTA *Euskal prentsa herri proiektua da*

JexuxMari Zalakain

282 orrialde

TXALAPARTA argitaletxea

JEXUX MARIK -kazetaria eta informazioa zientzietan doktorea- doktorego tesia aurkeztu zuen euskal prentsaren inguruan. Egun, Joxemi Zumalabe zenaren omenez apurtxo bat erreztu, zenbait orrialde kendu (lodixegia zatekeen bestela) eta txukundu ondoren liburu interesgarri hau plazaratu du.

Liburuan euskarazko prentsaren ibilbidea aztertzen da, bere hasieratik gaurregun EUSKALDUNON EGUNKARIA-raino.



ELKAR

FAGOR



**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ



ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8

Telefonia eta Faxa 28 74 82

01008 GASTEIZ

AITA-SEMEA elkarrizketa serio batean.

- Aizu, Joseba, gaur gauean neskatile bat ekarri digute Paristik
- esaten dio aitak.
- Bai? Eta amak ba al daki?

☆☆☆☆☆☆

OTSAILAREN 14AN, S. Valentin egunean entzundakoa parke batean.

- Oso mutil polita zara.
- Eskerrik asko, neska, baina ezin dut gauza bera esan zuregatik.
- Ba egin nik egiten dudana, gezurra esan.

☆☆☆☆☆☆

BURNIOLA BATEAN bi tartamudo lanean ari ziren eta batek esan zion besteari:

- Jo jo jo jo jo ezak!
- Nuuuuuuuuuuunnn?
- Ka ka ka ka ka kaza zazahaarraa!

☆☆☆☆☆☆

BI LAGUN kalean:

- Neka-neka eginda nago.
- Egun guztia lotan eta nekatuta zaudela?
- Bai, baina lanean aritu naizela egin dut amets.

☆☆☆☆☆☆

ZOROETXEAN...

- Zer ordu da?
- Ez al duzu erlojua ikusten?
- Ondo al dago hori?
- Ondo egongo balitz ez zuten hona ekarriko.

☆☆☆☆☆☆



NAHI DUZUNA EGIN

Etxean, klasean, bakarrik edo lagunekin...

Orri hauetan argitara dezakegu.

Txiste bat, poesia, elkarrizketa edo liburu-pelikula komentaketa.

Zuk nahi duzuna egin. Eta gure helbidera bidali:

GEU GASTEIZ
1691 postakutxa
GASTEIZ

kaixo

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

KAIXO


GEU GASTEIZKO
LAGUNOK, NI IPURBELTZ
ALDIZKARIKO AMONA NAIZ
ETA SAGAR OPILA NOLA
EGITEN DEN AZALDU NAHI
DIZUET. EA ZUEN
GUSTOKOA DEN ETA
HURRENGORA ARTE.



SAGAR OPIL GOXOA



KARAMELOA



BOLLOAK



SAGAR MARMELADA



FLANA




GURINA



1 BUSTI
MOLDEAREN
AZPI ETA
ALBOA
KARAMELOZ



2 BOLLOEI
AZALA KENDU
ETA XERRA
MEHETAN EBAKI



3 XERREI GURINA
PIXKAT IPINI
ETA MOLDEAN
ALDE HAU
BERUNTZ JARRI



4 HONELA
ONDO BETE
ONDOREN, GAINEAN
MARMELADA BOTA



5 ONDOREN
BESTE BOLLO
KAPA BAT



6 GERO
BESTE FLAN
KAPA BAT

7 ETA AZKENIK
BOLLO
KAPA BAT



8 GAINEAN, TAPA BAT JARRI
ETA PIXU HAUNDIKO ZERBAIT
HONELA, GAU BATEZ UTZI

9 OPILA MOLDETİK ATERA BAINO
LEHEN, BEROTU KARAMELOA
URTUTZEKO, ETA KONTU HAUNDIZ
ATERA OPILA PUSKATU EZ DADIN
EA... ON EGİN!!



Konpa: hiru hormetako erregea



Konpa kasu bitxia da zesta munduan. Gailurrean dago, profesional onenen artean, baina ez du orain arte ezinbestekoa zen baldintza bat betetzen: ez da bizkaitarra. Bizkaia zestaren sehaska da, eta kirol honen izarren jaioterriari gainbegirada bat bota besterik ez dugu beharko horretaz ohartzeko. Amateur gisa, burura eraman daitezkeen txapel guztiak bereganatu zituen gasteiztarak, Munduko Txapelketak, Bartzelonako Olinpiadetan Urrezko Domina... Profesionaletara salto egin, Estatu Batuetara joan, eta munduko onenekin lehian ikusi ahal izan genuen berehala, hau marka!. Egunotan min hartuta ibili da, baina GEU GASTEIK aldizkariko ale hau kaleratzerako, Gernika, Lekeitio, Gasteizeko... frontoietan borrokatzeko prest egongo da berriz.



Konparen sekretuak

- ✓ Izena: Juan Antonio Compañón.
- ✓ Adina: Urtarrilan 22 urte bete zituen.
- ✓ Jaioterria: Gasteiz.
- ✓ Hiru hilabete zituela pilotaleku batean egon zen aurreneko aldiz. Bere aita Bernedoko Txikito da, eta amak Frontoi Gasteiztarrera eramaten zuen, aita ikusteko. Lau urterekin pilotari lotu zitzaion, eta zazpirekin zestan hasi zen. Futbolean ere aritu da.
- ✓ Egunero hiru orduz entrenatzen du. Bere ustez, Gasteiz kirolaria izateko leku egokia da. Bere esanetan, baldintzak ezin egokiagoak dira, atletismo pista, gimnasilekuak, frontoi onak, korrika egiteko parkeak...
- ✓ Txapelik garrantzitsuenak: Munduko Txapelketa (Kuba 90), Munduko Txapelketa Sub-22 (Mexiko 91),

- Bartzelonako Olinpiada eta Ataineekin batera Miarrizteko Masters izenekoak.
- ✓ Aisi aldirako: Bernedon ehizan ibiltzea gustokoa du. Lagunekin egotea, musika... Kirol guztiak maite ditu, baina batez ere futbola eta saskibaloia.
- ✓ Zestak bizitzeko haina ematen dio. Hala ere, zesta bizimodu dutenak gutxi direla aitortzen du. "Zesta ez da futbola bezalakoa, eta nik zorte handia izan dut", gaineratu du.
- ✓ Goizeko lehen orduak euskara ikasten ematen ditu, eta dagoeneko bostgarren urratsan dabil. Horrez gain, I.V.E.F.-en dago lehenengo kurtsoan.
- ✓ Pilotaririk onena: Julian Retegi.
- ✓ Zestan: Katxin Uriarte, Bolibarko Txikito eta Remen.

- ✓ Palan: Iturzaeta, "bere heriotzak min egin dit, lagunmina nuen", erran digu buru makur. Berehala burua altxatu, eta jarraitu du: "Insausti, Juan Pablo, Urkia eta Valera arabarrak ere ez dira makalak".
- ✓ Kirolaririk gogokoenak: Karl Lewis, Ben Johnson, Romario eta Jose Mari Bakero.
- ✓ Bere proiektuak ikasketak bukatzea eta Gasteizen etxe bat erostea dira. Kirol arloan ordea, onenen artean, gailurrean, egon nahi du luzaro, eta ahal izanez gero, onena izan. Estatu Batuetara itzuli nahi du ere, baina epe labur baterako, eta ez orain, bere bizitza profesionala bukatu eta gero baizik.
- ✓ Bi hamarkada pasatxo baino ez badu ere, lau lesio eduki ditu. Guztira, eta hainbat boladatan, urtebetez egon behar izan du kantxeetatik kanpo.
- ✓ Konparen bizitzaren bazter guztiak kirolaz blai daude. Kirolak bizitzaren unerik latzenak ere eman dizkio, eta gasteiztarrak bi gogoratzen ditu bereziki: "14 urterekin Gasteizen Munduko Txapelketa ikusi nuen, ordudanik txapelketa horretara heltzea egin dut amets. Kubako Txapelketa baino sei hilabete lehenago mina hartu nuen, eta nire irriki hori bertan behera gelditu zen ia. Miarrizteko Txapelke-ta ere ez zen atsegina izan. Federa-zioko arduradunek ez zuten nire lana aintzakotzat hartu, eta partidu bat baino ez nuen jokatu. Urteek arrazoia kendu diete".
- ✓ O.H.O. Txagorritxu auzoko Miguel de Unamuno ikastetxean egin zuen. Ondoren, Fray Francisco de Vitoria Institutuan ibili zen.
- ✓ Oroitzapenik zoriontsuena utzi dion garaipena Kubako Txapelketa izan da, "lau urte luzeren ostean". Hala ere,



Cervecería Alemana

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



ezin du lehen txapela ahaztu, hain zuzen ere, hamar urterekin ira-bazi zuen Toba Taberna Txapelketa.

- ✓ Askotan dena uzteko gogoia etorri zaio. Honen argitarako hau esan digu; "neure buruari behin eta berriro agin-du diot zesta pikutara bidaliko duda-la, baina horrelako gauzak berehala ahazten dira. Zer izango nintzateke ni zesta barik?".
- ✓ Zesta munduan Konparen hankak baino arinagoak aurkitzea zaila da. Bada artistagorik, baina ez pilota guztietara heltzeko bera bezalakorik.
- ✓ Pilotariaren hitzetan, prakerrea izatea du akatsik nabarien, "gora laster hel-du nahi dut", esan du. Burugogorra ere badela aitortu du.
- ✓ Norgehiagoketara bere aitak laguntzen du. "Leku guztietara elkarrekin joan gara beti, eta geroan berdin jarraituko dugu." adierazi du azkenik.



Euskal Herrian pilotari asko dugu arren, gailurrean daudenak gutxi dira. Nahiz eta 22 urte besterik ez izan, Konpa horietako bat da. Juan Antonio Kompañonek aita izan zuen irakasle, Bernedoko Txikito; semeari pilotaren sekretu guztiak irakatsi zizkion txikitatik. Lau urte doi-doi zituela hasi zen gasteiztarra frontoian. Hasiera batean futbolarekin batera tartekatzen zuen pilota; baina zirt edo zart egin behar zela eta, hiru hormetako kirola aukeratu zuen, "nire aitak honela esan zidan egun batean: "Futbolari asko dago. Pilotariak ere ez dira gutxi, futboleak dihardutenak baino gutxiago, halere".

Orduantxe ireki zuten Ibarra Anaiek Gasteizeko Zesta Eskola. Konparen esanetan, izugarritzko garrantzia izan dute horiek bere bizitzan, "nire bigarren gurusoak dira -dio-. Euren lanari esker sortu dira pilotari onak Gasteizen. Bizkaiko zalegoa oraindik harritu egiten da gutako bat onenen artean sartuta dagoela ikustean. "El Correo" egunkarikoei adibidez, ez zitzairen hau buruetan sartzen".

Onenekin lehian

Gazte honen bizitzan aurrerako pausoak bata bestearen atzetik iritsi dira, etenik gabe. Bartzelonako Olinpiada bukatu bezain laster, bere lehen partidua jolastu zuen profesional bezala, ateak aspaldi-

Mulumasa
MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta
 Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

AZOKA
deportivos
Zure kirol- oinetakoak
 Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
 Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

danik baitzituen zabalik. "Abuztuaren 8an profesioaletara egin nuen salto. Partidua Katxin Uriarte eta Andonegiren aurka izan zen. Egun haietan Gasteizko jaiak ziren eta Olinpiadetako garaipena oraindik ospatzen ari ginen. Galdu egin genuen, noski, eta nik ez nuen pilotarik ikusi".

Orain urte t'erdi Estatu Batuetara abiatu zen, han pilotaren alde txarra ikusi ahal izan zuen, "argi eta garbi dago bere dirua jokoan jartzen duen jendeari esker irauten duela pilotak, baina ni ez naiz apostuen aldekoa. Gainera, hango eta hemengo pilotazale batzuek pilotari guztiok gautxoriak garelako diote, eta hori ez da egia inondik inora".

Dena den, Konpak etorkizun ona aurrakusten du zesarako. "Tenis zirkuitu antzerako zeozer egin nahi omen zuten. Nahitanahiez aurrera jo behar da, eta zenbait gauza aldatu behar dira, apostuak, prestakuntza, janzkera... Edo ez al da arraroa kirolari bat praka luzeekin ikustea?. Nik guzti hau ikustea espero dut, pilotan urte asko eman ditzaket eta".

Ismael Diaz de Mendibil

TXAPELDUN BATEN PUNTAKO GARAIPENAK

AMATEUR GISA

- 1982 Gasteizko Udala-Toba Taberna Txapelketa
- 1985 Arabako Txapelketa
- 1987 G.A.V.N. Sub-18
- 1988 G.R.A.V.N.I.
Euskadiko Txapelketan bigarrena
Munduko Txapelketa Sub-22 (bigarrena)
- 1989 Euskadiko txapelketa
Europako Txapelketa Sub-22
- 1990 Espainiako Txapelketa sub-18
Munduko txapelketa (Kuban)
- 1991 «Done Luis kapitaina» Nazioarteko Txapelketa (Kuban)
Hossegor Nazioarteko Txapelketa (Frantzia)
Munduko Txapelketa Sub-22 (Mexikon)
- 1992 Bartzelonako Olinpiadan Urrezko Domina

PROFESIONAL GISA

- 1992 Bilbo Hiriko Txapelketa
Plentziako San Antolin Txapelketa
Miarritzeko Masters (Ataiekin batera)
- 1993 Plentziako San Antolin Txapelketa
Bizkaiko Kopan bigarrena
- 1994 Gernikako urrezko Zestari bigarrena



BERTSO SAIOA



BERTSOLARIAK

- ▶ JON SARASUA
- ▶ ANDONI EGAÑA
- ▶ XABIER ZEBERIO
- ▶ JUANJO RESPALDIZA

VILLA SUSO
JAUREGIAN
iluntzeko 8etan

MARTXOAK 17
OSTEGUNA

ANTOLATZAILEAK:

GASTEIZKO BERTSO
ESKOLA
GEU GASTEIZ EUSKALDUNA




kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ





EMAKUMEAREN nazioarteko eguna

- 11, ostirala** • «Emakumea eta lana Europako hainbat herrialdetan» Mahai ingurua
19,30etan Villa Suson
- 12, larunbata** • JAIALDIA
20,30etan Landatxon
- 17, osteguna** • «Pornografia» Bideo-foruma
19,30etan Villa Suson
- 18, ostirala** • «Emakume atxilotuak»
19,30etan Villa Suson
- 16, asteazkena** • «Emakumea: familia»
19,30etan Villa Suson
- 17, osteguna** • «Bakardadeaz» HITZALDIA L.F.CAMARA
19,30etan Villa Suson
- 18, ostirala** • «Emakumeen lehengo gartzela» HITZALDIA M. Eugenia LACARRA
19,30etan Villa Suson

SEXUALITATE TAILERRA

Martxoak 9 eta 15
8etatik 10etara
BAGAREn
Amaia Vazquez

GROELANDIARAINOKO ESPEDIZIOA

Martxoak 11
gaueko 8etan
Luis de Ajuria
Dina Bilbao

AUSTRALIARAINOKO ESPEDIZIOA

Martxoak 18
Gaueko 8etan
Luis de Ajuria
Iosu Iztueta

BOLIVIAN ZEHAR

Martxoak 29
gaueko 8etan
Luis de Ajuria
Txus Diaz de Durana
eta Kike Fernandez de Pinedo



Benito Ginea

liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ



IZTABERNA
RA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

ESPERANTO
ELKARTEA

informa
zaitez!



Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)

ERAKUSKETAK



Luis de Ajuria Aretoan (General Alava 7).
Martxoaren 20a arte.
10 keramika egile.

San Prudentzio Aretoan (San Prudentzio 30).
Apirilaren 4a arte IGOR MITGRAS
Eskultura

Pajarita Aretoan. (Kutxilleria kalea, 22)
Artxoaren 31 arte ANA CARBALLO.
Pintura

Araba Aretoan: (Dendaraba).
Leioako Fakultateko ikasleen
erakusketa

Arte Rubens: (Manuel Iradier 9-A).
Martxoaren 11tik 26ra: PORTELLANO

Olagibel Aretoa: (Enparantza berria)
Martxoaren 11tik 25era. Pintura eta

Eskultura . 1.993 BILDUMA.
Arte-Gasteiz Bildumazaleen
elkarteak antolatua

Cordon Etxea: (Cuchilleria 24)
Martxoaren 8tik Apirilaren 8ra
SUIT OLYMPIC CENTENNIAL.. Nazio
guztietako marrazkilariak.
Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren
omenez

CM2: (Alava Jauregia. Herreria 24)
Martxoaren 26a arte
IGNACIO CABALLO, MARISA CASADO,
MIGUEL COPON, MANUEL VELASCO.

EPHIALTE aretoa: (Marques de Urquijo 18)
Maiatzaren 31 arte «El ruinismo
clásico a través del grabado en los
siglos XVI al XVIII)



MUSIKA

13, igandea • Kontzertua
San Jose de Arana Gasteizko Musika banda
Elizan, 13,15etan

15, asteartea • Kontzertua
ARABA aretoan P. Sorozabal
(Dendaraba) 8etan

22, asteartea • Kontzertua
ARABA aretoan Jesus Guridi musika-
(Dendaraba) 8etan eskola eta Kimets-
Goiargi abesb atza

26 larunbata • Flamenkoa
Principal Antzokian «El cabrero».
8,30etan

29 asteartea • Kontzertua
ARABA aretoan «musikamera» boskotea
(Dendaraba) 8etan



**Hator betiko
antzerkia
ikustera**

Principal Antzokia • KOMEDIA • Principal Antzokia

15, asteartea • «Dueña y señora»
20,30etan

16, asteazkena • «En un burro tres baturros»
20,30etan

17, osteguna • «Quién me compra un lío»
20,30etan

18, ostirala • «Marcos el idiota»
20,30etan

19, larunbata • «Enseñar a un sinverüenza»
20,30etan

20, igandea • «El castillo de los fantasmas»
12,30etan

20, igandea • «Préstame a tu mujer»
20,30etan

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

JATETXEA




Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

“UPELA” MOTRI

SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

DENBORAPASA



ZE HARRETARA

1. Zalduondoko ihauteriko pertsonaia. 2. Neska izena. Edateko. 3. Azkena. (Ald.) ugaritasun atzizkia. Eguzki. 4. Zezenketan. (Ald.) Alegera. Bigarrena. 5. Noraino atzizkia. Hitzaz. 6. Letra grekoa. Lehena. Neurri atzizkia. 7. Izar multzoa. Lehena. Bi aldiz gorotza. Lehena. 8. Tarragonako autoetan. Zori, halabehar. (Ald.) Urak irakitean. 9. Txori bat. Bukatu. 10. Lehena. Jostailu borobila.

GOITIK BEHERA

1. Mozorroa jantzita. 2. Amnesty International. Vietnam ondoko estatu bat. Santanderreko autoetan. 3. Odol mota. Bizkaieraz omen. (Ald.) Barkuaren atzeko aldea. 4. Portu. Nafarroako autoetan. Lehena. Iodoa. 5. Indiako. Zati. 6. Infusio. Lehena. Potasioa. Heldu. 7. Oxigenoa. Hitzak. Kanpo. 8. Sukaldean aritzen dena. 9. Nori atzizkia. Bizkaiko herri bat. (Ald.) Tori, hartu. 10. Errepikaturik barre. Baldintza adierazteko. (Ald.) Zornotzako auzoa.

ERANTZUNAK



Eguzki eta euri, martxoaren eguraldi!

PUZZLEA

Jar itzazu ondoko zatiak dagozkien lekuetan eta esaera zahar bat irakurri ahal izango duzu.



**JATETXEAK
ERRETEGIAT**

OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behe. Tfnoa. 284196 -
01005 GASTEIZ



DARAMAGUN bizimodua, denbora falta eta abarrekoak direla medio, indarrez sartu da gure bizitzan Mikrouhin-labea. Aldeko eta kontrako amorratuak ditu. Guk ez dugu jarrerarik hartuko, halere, hona hemen tresna horretan presta daitezkeen 2 errezeta. On egin!

MUSKUILU KREMA

Osagaiak: (6 lagunentzat)

- Muskuiluak: 2 kg
- Esne krema: 1/4 l.
- Irina: 1/2 goilarakada
- Gurina: goilarakada bat
- ardo zuria: edalontzi bete
- Kipula xehetua: goilarakada bat
- Apio abarrak: 2, oso ondo xehetuak
- goilarakada bat perexil txikitua, gatza eta piperrautsa

Nola egin:

Bol batean, kipula, apio, perexila, piperrautsa eta ardo zuria jarri. Ondo estali eta egosi (mikrouhin-labean 4 min. pontentzia handiengan).

Muskuiluak garbitu eta aurreko nahasketa gehitu. Sartu labean (mikrouhin-labea) eta 10 minutuz eduki (berriro ere potentzia handiengan).

Muskuiluak atera, zatitu eta saldarekin batera (iragazia) gorde.

Bol batean guruna berotu (1/2 minutu) eta gurina eta esne krema gehitu, nahasketa ondo mugituz. Sartu labean 2 minutuz.

Muskiluen salda gehitu eta labean eduki 2 edo 3 minutuz.

Ondoren atera, gatza eta piperrautsa bota eta muskuilu zatituak gehitu. Gazta zatiekin batera atera daiteke.

ATUN PASTELA

Osagaiak: (4 lagunentzat)

- Arraultzak: 2
- Patata purea: sobre bat (etxean ere egin dezakezu)
- Esnea: basokada dat
- Oliba beltzak: 100 gr (xehetuak)
- Piperrak: 2
- Atun eskabetxe erara: 2 lata
- Apio abarrak: 2, oso ondo xehetuak
- Antxoak: lata bat
- Gatza, intxaur muskada eta gurina

Nola egin:

Purea ohizko moduan prestatu, esnea, gurina, gatza eta intxaur muskada erabiliz. Saia zaitezte lodi uzten.

Arraultzak irabiatu eta atun xehetua, olibak, piperrak eta antxoan gehitu (guzti hori ondo xehetua).

Ondo nahastu dena, azpil batean jarri eta labean sartu 7 minutuz, potentzia handiengan.

Txukunago zerbitzeko olibak eta piperrak erabil ditzakegu.



Bacalao Giraldo

• Egunero makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldiaran - Gasteiz





LET'S START
PLAYING THE GA-
ME...!!!



ETXEOAK BESTEAK



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 77
O.K.U.S./ DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraiibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



Lortu azkar zure TeleCaja Joven
ala honela geratuko zara!!!



Linea Gaztea

Caja Vital  Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioren bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrak egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.